

43<sup>o</sup> Vitoria-Gasteizko  
Nazioarteko  
Antzerki Jaialdia

Festival Internacional  
de Teatro de Vitoria-Gasteiz

urria · azaroa | octubre · noviembre, 2018



# Aurkibidea / Índice

or./pag.

4	urriak <b>5</b> octubre	Inflammation du verbe vivre Wajdi Mouawad	Teatro Principal Antzokia
6	urriak <b>6</b> octubre	Les larmes d'Œdipe Wajdi Mouawad	Teatro Principal Antzokia
8	urriak <b>9</b> octubre	Izoztutako Haizea / Como un viento helado Tanttaka	Teatro Principal Antzokia
8	urriak <b>10</b> octubre	Como un viento helado / Izoztutako Haizea Tanttaka	Teatro Principal Antzokia
10	urriak <b>11</b> octubre	La valentía Alfredo Sanzol	Teatro Principal Antzokia
12	urriak <b>18</b> octubre	¿Quién es el señor Schmitt? Barco Pirata	Teatro Principal Antzokia
14	urriak <b>19</b> octubre	Esto no es La Casa de Bernarda Alba Draft Inn	Teatro Principal Antzokia
16	urriak <b>25</b> octubre	Man Ray Taiat Dansa	Teatro Principal Antzokia
18	urriak <b>26</b> octubre	Link Link Circus Isabella Rosellini	Teatro Principal Antzokia
20	urriak <b>31</b> octubre	Bosch Dreams Les 7 Doigts de la Main	Teatro Principal Antzokia
22	azaroak <b>2</b> noviembre	Moby Dick Josep María Pou	Teatro Principal Antzokia
24	azaroak <b>8</b> noviembre	Ahora todo es noche La Zaranda	Teatro Principal Antzokia
26	azaroak <b>9</b> noviembre	Erritu Kukai Dantza	Teatro Principal Antzokia
28	azaroak <b>14</b> noviembre	The animals and children took... 1927	Teatro Principal Antzokia
30	azaroak <b>17</b> noviembre	Espía a una mujer que se mata Daniel Veronese	Teatro Principal Antzokia
32	azaroak <b>22</b> noviembre	Todo el tiempo del mundo Buxman-Kamikaze	Teatro Principal Antzokia
34	azaroak <b>24</b> noviembre	Jane Eyre Teatre Lliure	Teatro Principal Antzokia

## Gizarte Etxeetako antzerkia / Teatro en los centros cívicos

36	urriak <b>20</b> octubre	La Conquista de lo inútil Compagnie L'alakran	Teatro Félix Petite Antzokia
38	urriak <b>27</b> octubre	Grand Applause Jorge Dutor & Guillem Mont	Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia
40	azaroak <b>7</b> noviembre	Best of Be Festival	Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia
42	azaroak <b>15</b> noviembre	Erlauntza / El enjambre Vaivén Producciones	Teatro Félix Petite Antzokia
42	azaroak <b>16</b> noviembre	El enjambre / Erlauntza Vaivén Producciones	Teatro Félix Petite Antzokia

## Familiarentzako antzerkia / Teatro en Familia

44	urriak <b>21</b> octubre	You and me Mummenschanz	Teatro Principal Antzokia
45	urriak <b>28</b> octubre	Kaput Ganso & Cía	Teatro Principal Antzokia
46	azaroak <b>4</b> noviembre	Panda's home Compañía TPO	Teatro Principal Antzokia
47	azaroak <b>11</b> noviembre	Invisibles Voilà Producciones	Teatro Principal Antzokia

## Haurtxoak proiektua / Proyecto bebés

48	azaroak <b>17</b> noviembre	Ehuna Dantzaz – Teatro Paraíso	Teatro Federico Gar- cía Lorca Antzokia
49	azaroak <b>18</b> noviembre	Conchas D'Orfeo - Ac Marionetas de Mandrágora	Teatro Federico Gar- cía Lorca Antzokia
49	azaroak <b>25</b> noviembre	Viaje de una nube Teatro La Baracca	Teatro Federico Gar- cía Lorca Antzokia

## Antzerkia zabaltzen / Teatro abierto

50	urriak <b>10-11</b> <b>12-14</b> octubre	Enredados: Calma chicha Kolectivo Monstrenko	Montehermoso Ur Biltegia /Depósito de aguas
51	azaroak <b>18-19</b> <b>20-21</b> noviembre	OFF Lokal Azken Principal Dantza Tranpola Irmo Larrua	Teatro Principal Antzokia
52	azaroak <b>12-</b> <b>19-27-28</b> noviembre	Arte eszenikoen jardunaldiak /Jornadas de artes escénicas	
53	azaroak <b>5-6-7-8</b> noviembre	Solasaldiak / Tertulias Laboratorio de Danza "Erritu"	
54	Prezioak / precios		
56	Sarrerren salmenta / Venta de entradas		
58	Abonamendu irekia / Abono abierto		

**Des mourants - Wajdi Mouawad - La Colline Théâtre National**

urriak 5 y 6 octubre, 20:30

Jaialdiaren inaugurazioa / Inauguración del festival

Zuzendari ospetsu hau kultuko hainbat lanen egilea da, hala nola *Suteak*, *Ciels* eta *Itsasbazterra*. Oraingoan, munduko antzoki eta jaialdi onenetan txalotutako zuzendaria antzezle gisa dator gure hirira, Nazioarteko 43. Antzerki Jaialdia inauguratzera.

*Ediporen malkoak* obra *Des mourants* diptikoaren zati da; diptikoarekin, Sofoklesen tragedien multzoa taularatzeko proiektuari amaiera ematen dio Wajdi Mouawadek. 2013an Robert Davreu itzultzailea hil zen (Mouawadek harekin hasi zuen ibilbide hau), eta horren ondorioz, *Filoktetes* eta *Edipo Colonan* obren bertzio propioak idatzi zituen, *Inflammation du verbe vivre* eta *Les larmes d'Œdipe*,

Responsable de obras de culto como *Incendios*, *Ciels* y *Litoral*, este afamado director de escena aclamado por los mejores teatros y festivales del mundo, visita nuestra ciudad ahora también como intérprete para inaugurar el 43 Festival Internacional de Teatro.

Con *Des mourants*, Wajdi Mouawad cierra el proyecto de poner en escena el conjunto de las tragedias de Sófocles. La muerte en 2013 del traductor Robert Davreu, con quien había iniciado la experiencia, le llevó a reescribir sus propias versiones de *Filoctetes*, (*Inflammation du verbe vivre*) y de *Edipo en Colona*, (*Les larmes d'Œdipe*)

# Inflammation du verbe vivre (Des mourants)

## Wajdi Mouawad

urriak 5 octubre, 20:30

Sofoklesen jatorrizko tragedia, *Filoktetes*, modu inplizituan agertzen da *Inflammation du verbe vivre* obran: Zazpi tragediak taularatzeko prestatzen ari zen Wajdi, baina lana amaitu baino lehen bere itzultzailea hil egin zen. Sortzeko gaitasunik gabe, Greziara joan zen Wajdi, Filoktetes eta antzinako heroien bila.

Eszena-zuzendaria Dante Infernuan, Filoktetes bera, Ulises, bihurtzen da. Antzeturiko pelikulan, pertsonaiak pantailatik igarotzen dira, eta haiekin hitz egiten du eszenan edo grabazioetan dagoen Wajdik...

La tragedia original de Sófocles, *Filoctetes*, aparece de manera implícita en *Inflammation du verbe vivre*. Mouawad trabaja en la puesta en escena de las siete mismas tragedias, cuando fallece su traductor antes de terminar su labor. Mouawad incapaz de crear, viaja a Grecia en busca de *Filoctetes* y de los antiguos héroes.

El director de escena se convierte en Dante en los *Infiernos*, en el mismo *Filoctetes*, en *Ulises*. En la película teatralizada, los personajes pasan por la pantalla con la que Mouawad, presente en escena o en grabaciones, dialoga...

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenarioTestua eta Zuzendaritza / Texto y dirección:  
Wajdi MouawadAntzezleak / Intérpretes:  
Dimitris Kranias , Wajdi MouawadFrantsesez, gaztelaniazko goi-tituluz  
lagunduta / Espectáculo en francés con  
sobretítulos en castellano.

120 m

© Pascal Gély

# Les larmes d'Œdipe (Des mourants)

Wajdi Mouawad

Urriak 6 octubre, 20:30

*Les Larmes d'Œdipe* lanean, bere bizitzako azken eguna igarotzeko leku baten bila ari dela, Edipo antzinako antzoki batera iristen da, Atenasen, Antigona alabak lagunduta. Baina korifeo batek —koroaren burua— albisteak dakartza krisian dagoen Atenas modernotik: hiria, sumindurik, negarrez dago, poliziak nerabe bat hil duelako, 2008an Exarchia auzoan izandako protestetan.

Hiru ahotseko oratorio honetan, itzalen antzezlan honetan, bizitzak desbideratu egiten dira, eta denborak nahasten: “bizi izandako zorigaitzetatik argi dirdiratsuzko une bat sortzen da: gaur, atzo bezala, hitzen labirintoan barneratu beharra dago, galdutako haurtzaroen eta senidetasun ikusezin baten oihartzuna heriotzatik haratago entzun dadin, baretze eta adiskidetze azken keinu gisa”.

En *Les Larmes d'Œdipe*, guiado por su hija Antígona hasta un antiguo teatro de Atenas, Edipo busca el lugar donde pasar el último día de su vida. Pero un corifeo —jefe del coro— trae noticias de la Atenas moderna en crisis: la ciudad enfurecida llora el asesinato (real) de un adolescente a manos de la policía durante unas protestas en el barrio de Exarchia en 2008.

En este oratorio a tres voces, este teatro de sombras, las vidas se extravían y los tiempos se confunden: «de las desgracias vividas nace un instante de luces fulgurantes: hoy como ayer es necesario penetrar en el laberinto de las palabras para que resuene el eco de las infancias perdidas y de una fraternidad invisible más allá de la muerte, en un último gesto de apaciguamiento y de reconciliación».

Edipo Colonan obran oinarrituta.  
Basada en Edipo en Colona de Sófocles

Testua eta Zuzendaritza / Texto y dirección:  
Wajdi Mouawad

Antzezleak / Intérpretes: Jérôme Billy, Charlotte Farcet, Patrick Le Mauff

Teatro Principal Antzokia Mendeurreneko  
abonamendua / Abono centenario

Frantsesez, gaztelaniazko goi-tituluez  
lagunduta / Espectáculo en francés con  
sobretítulos en castellano

105 m

© Pascal Gély



# Izoztutako haizea | Como un viento helado

## Tanttaka

urriak 9 octubre, 20:30, euskaraz  
urriak 10 octubre, 20:30, castellano

“Zazpi pausu daude teilatuaren ertzera”

Heriok hiru silaba ditu. Beldurra... Nazka... Arratsaldeko zortziak dira. Tiro baten hotsa entzun da. Neska bat korrika atera da farmaziatik. Bizikleta hartu eta atzera begiratu gabe eragiten die pedalei. Aitaren arnasa... Bost pausu nire ohera... Tabako-usaina. Emakume batek gomazko mahuka jarri du kotxearen ihes-hodian, eta atera itxi du. Norbaitek esan dizu arriskuan zaudela. Poliziaren sirenak entzuten dira han urrutian. Jolas egingo dugu eskolan bezala, ea nork jasaten duen mina gehien?

Lan honekin, abusuari buruzko trilogiari amaiera ematen dio Tanttaka Teatroak; aurretik izan dira “Muxua/un beso” eta “Giltzadun Etxea/La casa de la llave” obrak. Lan horiek ikusi ahal izan ditugu Gasteizko antzokien sarean, Fernando Bernuésen zuzendaritza bikainarekin.

“Hay siete pasos hasta el borde de la azotea”

Muerte tiene dos sílabas. Miedo... Asco... Son las ocho de la tarde. Suena un disparo. Una chica sale corriendo de una farmacia. Coge la bicicleta y pedalea sin mirar atrás. La respiración de mi padre... Cinco pasos hasta mi cama... El olor a tabaco. Una mujer coloca una manguera de goma en el tubo de escape de su coche y cierra la puerta. Alguien te avisa de que estás en peligro. Las sirenas de la policía se escuchan a lo lejos. ¿Jugamos a ver quién aguanta más el dolor como hacíamos en el colegio?

Con este trabajo, Tanttaka Teatro cierra la trilogía sobre el abuso, precedida por obras como “Muxua/un beso” y “Giltzadun Etxea/ La casa de la llave”. Trabajos que hemos podido ver en la red de teatros de Vitoria-Gasteiz bajo la impecable dirección de Fernando Bernués.

Egilea / Autor: Rafael Herrero

Itzulpena / Traducción: Aizpea Goenaga

Zuzendaritza eta eszenografia / Dirección y escenografía: Fernando Bernués

Antzezleak / Intérpretes: Nerea Elizalde, Tania Martín y Koldo Olabarri

tanttaka.com

Teatro Principal Antzokia

Euskarazko antzerki abonamendua /  
Abono teatro en euskara: urriak 9 octubre

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono:  
urriak 10 octubre

Leku mugatuak /Aforo limitado



© Javier Naval

# La valentía, Alfredo Sanzol

Lazona - El Pavón Teatro Kamikaze

urriak 11 octubre, 20:30

Alfredo Sanzol obra garrantzitsuen egilea da (adibidez, *Samurtasuna/La ternura*), eta 4 Max sari eta 2017ko Literatura Dramatikoko Sari Nazionala irabazi zituen. Oraingoan proiektu berri batekin dator Principal antzokira: *ausardia/la valentía*.

*Ausardia/La valentía* obran, Guada eta Trini ahizpek familiako etxea jaso dute oinordetzan, non igarotzen baitzituzten udak, landan. Biek maite dute etxea, baina arazo txiki bat dauka: sarrerako atetik bost metrora autopista igarotzen da. Hala ere, Guadak etxea edukitzen jarraitu nahi du, eta negua bertan igarotzea erabaki du. Trini kezkatuta dago bere ahizpak etxearekiko duen obsesioarekin, eta handik atera nahi du kosta ahala kosta, eta horretarako, komikotasun handiko unez betetako satira batean barneratzen gaitu Sanzolek.

Egungo antzerkiaren munduko teatrogile ospetsuenetako baten eskutik datorkigun komedia.

Alfredo Sanzol autor de grandes obras como *La ternura* y ganador de 4 premios Max y del Premio Nacional de Literatura Dramática 2017, vuelve al Principal con un nuevo proyecto: *La valentía*.

En *La valentía*, una pareja de hermanas, Guada y Trini, han heredado la casa familiar en la que pasaban sus veranos en el campo. Las dos aman la casa, pero tiene un pequeño problema: a cinco metros de la puerta de entrada pasa una autopista. A pesar de eso, Guada quiere conservarla y ha decidido quedarse para pasar el invierno, pero Trini está preocupada con la obsesión que le ha entrado a su hermana con la casa y quiere sacarla de ahí cueste lo que cueste, y para ello Sanzol nos adentra en una sátira repleta de momentos de gran comicidad.

**Una comedia de la mano de uno de los dramaturgos más célebres del panorama escénico actual.**

Testua eta zuzendaritza /

Texto y dirección: Alfredo Sanzol

**Antzezleak / Intérpretes:** Jesús Barranco, Francesco Carril, Inma Cuevas, Estefanía de los Santos, Font García, Natalia Huarte

teatrokamikaze.com

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

110 m



# ¿Quién es el señor Schmitt?

**Barco Pirata**

**urriak 18 octubre, 20:30**

Carnero senar-emazteak lasaitasun osoz etxean afaltzen ari dira, eta halako batean telefonoak jotzen du. Baina Carnerotarrek ez dute telefonorik. Solaskide misterioitsuak Schmitt jauna izeneko norbaitekin hitz egin nahi duela dio behin eta berriz... Eta are arraragoa den zerbait ere gertatzen da, Carnerotarrak jabetzen dira beren etxea ez dirudien etxe batean daudela giltzapetuta: koadroak aldatuta daude, liburuak ez dira beraienak, armairuetako arropa ez da beraiena...

Izua zabaltzen da bazter guztietan, amesgaiztoa hasi baino ez da egin.

Hasieran komedia harrigarria dirudiena suspense-thriller bihurtzen da bat-batean, eta amaieran drama eta are tragedia ere ukitzen du. Eta hori guztia, absurdoaren ezaugarriekin zipriztindua. Obra honen helburua ez da kontakizunari amaiera ematea, baizik eta ikusleek beren amaiera jartzea.

**Umore absurdoa, argia eta bizkorra Sergio Peris Menchetaren zuzendaritzapean.**

**Bertsioa eta zuzendaritza / Versión y dirección: Sergio Peris Mencheta**

**Egilea / Autor: Sébastien Thiéry**

**Antzezleak / Intérpretes: Cristina Castaño, Javier Gutiérrez, Armando Buika, Xabier Murua y Quique Fernández**

Barco Pirataren ekoizpena / Una producción de Barco Pirata

barcopirata.org

El señor y la señora Carnero cenan tranquilamente en su casa, cuando de pronto suena el teléfono. Pero los Carnero no tienen teléfono. El misterioso interlocutor insiste en hablar con un tal señor Schmitt...

Y lo que es más extraño aún, los Carnero descubren que están encerrados en el interior de una casa que no parece su casa: los cuadros han cambiado, los libros no son sus libros, la ropa de sus armarios no les pertenece...

El pánico se apodera de todo, la pesadilla no ha hecho más que comenzar.

Lo que empieza como una sorprendente comedia de pronto se convierte en un thriller de suspense, para terminar acariciando el drama e incluso, la tragedia. Y todo ello regado por las aguas del absurdo. Una obra que no busca cerrar la historia sino que el público le ponga su propio final.

**Humor absurdo, inteligente y rápido bajo la dirección de Sergio Peris Mencheta.**

Teatro Principal Antzokia

Mendeurrenoko abonamendua / Abono centenario

100 m



© Gerardo Sanz

# Esto no es La casa de Bernarda Alba

Carlota Ferrer

urriak 19 octubre, 20:30

Ekitaldia hasten da. Museo batean Federico García Lorcaren *Bernarda Albaren Etxea/La casa de Bernarda Alba* obra dago erakusgai. Artista gizonezko batzuek instalazio plastiko eta eszena *performatibo* batzuk eraikitzen dituzte poetak utzi zigun kontakizuna oinarri hartuta, emakumeen rola antzetzuz eta horrela emakumeen pertsonaiak emakumeek antzetzuz behar dituztela ezartzen duen arauari aurre eginez.

*Hau ez da Bernarda Albaren Etxea/Esta no es la Casa de Bernarda Alba* obrak feminismo erradikalaren diskurtsoa bilatzen du, hau da, arazoaren jatorria helburu duena: aktore eta dantzari gizonezkoen ahotan Federicoren hitzak jarritz, agerian uzten dugu emakumeak egoera ahulean daudela ordena hetero-patriarkalaren ikuspegi menderatzailearen aurrean eta ordena horrek mundua beldurraren bidez kudeatzearen aurrean.

Irudimen sortzailetik abiatuta askatasunaren aldeko aldarria da, irudia, poesia, musika eta dantza uztartuz.

Solasaldia antzezpena bukatutakoan /  
Tertulia tras la representación

Zuzendaritza eta koreografia / Dirección y coreografía: Carlota Ferrer

Egilea / Autor: Federico García Lorca

Bertsioa / Versión: José Manuel Mora

Antzezleak / Intérpretes: Eusebio Poncela, Oscar de la Fuente, Jaime Lorente, Cristóbal Suárez, David Luque, Julia de Castro, Guillermo Weickert, Arturo Parrilla, Diego Garrido

Se abre el telón. En un museo se exhibe la obra *La casa de Bernarda Alba* de Federico García Lorca. Un conjunto de hombres artistas construyen una serie de instalaciones plásticas y escenas *performativas* a partir de la fábula que nos legó el poeta, encarnando los roles femeninos y desafiando así la norma establecida de que los personajes femeninos han de ser interpretados por mujeres.

En *Esto no es la Casa de Bernarda Alba* nos hallamos ante la búsqueda de un discurso feminista radical, es decir, que intenta viajar a la raíz: al poner en boca de hombres actores y bailarines las palabras de Federico ponemos en evidencia la fragilidad de la mujer ante la visión dominante del orden hetero-patriarcal y su gestión del mundo a través del miedo.

**Un canto a la libertad desde la imaginación creadora donde se fusionen imagen, poesía, música y danza.**

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

110 m





# Man Ray

## Taiat Dansa

urriak 25 octubre, 20:30

Man Rayen lanaren eta hark bultzatu zituen mugimenduen miresle izanik, Meritxell Barberá eta Inma García koreografoek lan hau aurkeztzen dute, egile horren irudiaren inguruan. Txikagoko Danceworks konpainiarekin izaniko lankidetzaren emaitza da lana, eta bertan argazkilariak sorturiko irudiak ikertzen dira; formatu handiko ikuskizuna da.

Kasu honetan, Man Rayen eta haren garaiko beste artista batzuen obretan dagoen emakumeen ikuspegia lantzen dute bi sortzaileek, eta emakumeen erabilera, batzuetan inspirazio-eredu gisa eta beste batzuetan objektu soil gisa.

Hauen arteko koprodukzioa da obra: Bartzelonako Grec 2017 Jaialdia, Institut Valencià de Cultura, Ballet de la Generalitat, Taiat Dansa eta 2017ko Sagunt a Escena Jaialdia.

Taiat konpainiaren lana aldartetsua izan ohi da, zorrotasunez, pasioz eta errebeldia-ukitu batekin egina. 2003an sortu zenetik hainbat gunetan eta jaialditan aurkeztu izan ditu bere obrak, bai nazioan bai nazioartean.

**Koreografia / Coreografía:** Meritxell Barberá e Inma García.

**Zuzendaritza eta musika interpretea / Dirección e interpretación musical:** Caldo

**Dantzariak / Bailarines/as:** Cristina Reolid, Cristian Arenas, Miguel Ángel Fernández, Víctor Fernández, Kilian García, Cristian González, Jon López, Joel Mesa, Martxel Rodríguez, (Cover Mauricio Pérez).

[www.taiatdansa.com](http://www.taiatdansa.com)

Admiradoras de su trabajo y de los movimientos que impulsó, las coreógrafas Meritxell Barberá e Inma García presentan este trabajo en torno a la figura de Man Ray. Fruto de la colaboración con la compañía Danceworks de Chicago, en la pieza se investigan las imágenes creadas por el fotógrafo, siendo espectáculo de gran formato.

Ambas creadoras se sienten en esta ocasión interesadas en el tratamiento de la mujer en la obra de Man Ray y, por ende, de otros artistas de su tiempo, y en el uso de la fémica a veces como modelo de inspiración y otras como un simple objeto.

La obra es una coproducción del Grec 2017 Festival de Barcelona, Institut Valencià de Cultura, Ballet de la Generalitat, Taiat Dansa y Sagunt a Escena 2017.

El trabajo de Taiat suele resultar temperamental, con rigor, apasionamiento y cierta rebeldía. Desde su creación en 2003 han presentado sus creaciones en distintos festivales nacionales e internacionales.

Teatro Principal Antzokia

Dantza abonamendua / Abono danza



# Link Link Circus

**Isabella Rosellini (Estatu Batuak, Frantzia / Estados Unidos Francia)**

**urriak 26 octubre, 20:30**

Isabella Rosellini telebistako aktore eta zinema-zuzendari arrakastatsua da, eta benetako interesa du animaliekiko eta bizitza basatia zaintzearekiko. Haren film laburrek hainbat sari irabazi dituzte, esaterako, Green Porno, Seduce Me eta Mammas, eta animalien portaerari buruzko ikuspegi komikoa eta zehatza eskaintzen dute.

Link Link Circus

Gizakiekin harremanetan bizi izan diren animalien garapenari buruzko kontakizun zientifikoa da, fribolitatez eta umorez betea. Bideoak, argazkiak, diseinua eta irudimenezko mozerroak ditu kontakizunak; horien bidez, aditu handien pentsamenduak entzun ditzakegu, Darwin, Aristoteles eta Descartesenak adibidez, eta berriro aurkitu gizakiak eta animaliak modu korapilatsuan batzen dituen linka edo haria.

**Jaun-andreok, ongi etorri Link Link Circus-era! Animalien munduan inspiraturiko bakarrizketa da, datu zientifikoetan oinarritua baina ikuspegi komikoarekin.**

Isabella Rosellini es una exitosa actriz de televisión y directora de cine, con un profundo interés en los animales y por la conservación de la vida salvaje. Sus cortos ganadores de premios Green Porno, Seduce Me y Mammas, ofrecen estudios cómicos y perspicaces sobre el comportamiento animal.

Link Link Circus

Es un relato científico sobre la evolución que han tenido los animales que han estado en contacto con el ser humano, repleto de frivolidad y sentido del humor y que cuenta con soporte de vídeo, fotografía, diseño y disfraces imaginativos en los cuales podremos escuchar el pensamiento de grandes estudiosos, como Darwin, Aristóteles y Descartes, y reencontrar el 'link' (el hilo conductor) que une inextricablemente el ser humano con el mundo animal.

**¡Señoras y señores, bienvenidos al Link Link Circus! un monólogo inspirado en el mundo animal, a partir de datos científicos pero con una visión cómica.**

Teatro Principal Antzokia

**Egilea /Autora:** Isabella Rossellini

**Ko zuzendaritza / Co-dirección:**  
Guido Torlonia

**Antzezlea / Intérprete:** Isabella Rossellini

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

Ingelesez, gaztelaniazko goi-tituluez  
lagunduta / Espectáculo en inglés con  
sobretítulos en castellano



# Bosch Dreams (Boschen ametsak/Los sueños de El Bosco)

Les 7 Doigts de la Main (Kanada /Canadá)

urriak 31 octubre, 20:30

Eguzkiaren Zirkoko zazpi artistak sortu zuten *Les 7 Doigts de la Main* 2007an, zirkoa berriro ere definitzeko helburuarekin.

*7 Hatzek* zirkoko garaikidearen ikuskizunak sortu dituzte, dantza modernoa, akrobaziak, antzerkia eta alderdi askoko osagaiak batuz. Ikusmen-efektuak, intimitatea eta ikusleekiko gertutasuna dira haren funtsezko osagaiak.

Orain gure jaialdian aurkeztuko dute: *Bosch Dreams (Boschen ametsak)*, irudimenean zehar eginiko bidaia zoragarria, Boschen alegiazko mundu koloretsuan murgiltzeko.

Ikusleak fantasia eta alegiazko munduan barneratuko dira, eta, bertan, akrobaten gorputzek eta mugimenduek Boschen irudi surrealistei bizitza emango diete agertokian.

*Les 7 Doigts de la Main* fue fundada en 2007 por siete artistas del Circo del Sol con el objeto de redefinir el circo una vez más.

*Los 7 Dedos* han creado espectáculos de circo contemporáneo aunando danza moderna, acrobacias, teatro y elementos multidimensionales. Los efectos visuales, intimidad y cercanía con el público son sus características esenciales.

Ahora presentan en nuestro festival: *Bosch Dreams (Los sueños de El Bosco)*, un fabuloso viaje a través del imaginario que se interna en el fantástico y abigarrado mundo de El Bosco.

La audiencia se verá envuelta en un mundo fascinante donde los cuerpos y movimientos de los acróbatas traen a la vida las imágenes surrealistas del Bosco en el escenario.

**Egilea / Autor:** Samuel Tétréault, Martin Tulinus , And Ange Potier

**Zuzendaria / Director:** Samuel Tétréault

**Vídeo:** Ange Potier

**Antzezleak / Intérpretes:** Héloïse Bourgeois, Sunniva Løvland Byvard, Evelyne Lamontagne, Jorge Petit, Mattias Umaerus, William Underwood, Vladimir Amigo (Understudy)

7doigts.com

Teatro Principal Antzokia

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

81 m



# Moby Dick

Josep María Pou - Teatre Romea

azaroak 2 noviembre, 20:30

Ahab kapitainaren, literatura unibertseko pertsonaia garrantzitsuenetako baten, larruan jarri da José María Pou, itsasgizon zaildu zaharrak bale zuri handiarekin duen obsesioa kontatzeko. Moby Dick antzezlan, Andrés Limak zuzendua, Herman Melvilleren klasikoetako baten berrikuspena da, Juan Cavestanyren begiradapean.

Gizakiak bere buruarekin eta izadiarekin duen borrokaren metafora zoragarria da obra, eta taularatzea oso ondo zainduta dago. Ahab kapitainak agerian jartzen du arrazoiak haratago doan gizakiaren obsesioa, borondatea xahutu dezakeena eta arimaren ezaugarri on oro alde batera utzi.

Moby Dick antzezlaren bidez, bere helburua lortzeko edozer gauza egiteko prest dagoen gizon baten eromenaren barruraino bidaiatuko du ikusleak.

José María Pou se pone en la piel del capitán Ahab, uno de los grandes personajes de la literatura universal, para relatar la obsesión de este viejo lobo de mar con la gran ballena blanca. El montaje de Moby Dick, dirigido por Andrés Lima, ofrece una revisión de uno de los clásicos de Herman Melville bajo la mirada de Juan Cavestany.

La pieza es una fascinante metáfora de la lucha del hombre contra sí mismo y la naturaleza, presentada en una depurada puesta en escena. El capitán Ahab evidencia la obsesión humana que va más allá de la razón, capaz de consumir la voluntad y eliminar cualquier elemento bondadoso del alma.

Moby Dick invita a la audiencia a hacer un viaje a las profundidades de la locura de un hombre capaz de todo para satisfacer su empeño.

Zuzendaritza / Dirección: Andrés Lima

Testua / Texto: Juan Cavestany, Herman Melvilleren eleberrian oinarrituta / basado en la novela de Herman Melville

Antzeleak / Intérpretes: Josep María Pou, Jacob Torres, Oscar Kapoya

Ekoizpena / Producción: Focus

focus.es

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

80 m

# Ahora todo es noche

## La Zaranda

azaroak 8 noviembre, 20:30



La Zaranda Jaialdira dator berriro. Obra berrian islatzen da “konpainia baten unibertsoa, haren zauriak eta orbanak, haren iruditegia hondatua, haren ahots urratua, haren pertsonaia etsiak. Oinak klasikoetan, eta gizaki bakoitzaren arimari hitz egiteko modu berrietan jarrita begirada. Tradizionalak eta rupturistak, kontraesan bizia, beti haizearen kontra, lau hamarkadako pasioa munduko agertokietan: La Zaranda-Teatro Inestable de Ninguna Parte antzerkiak berrogei urte bete ditu denboran barrena”. Zarandako Paco

*Orain dena gaua da/Ahora todo es noche* obran ikusezin bihurtu ziren, hainbestetan ikusten ditugu geltoki eta aireportuetako sarreretan erdi lo, zabor-edukiontzietan zerbaiten bila, ongintzako jantokietan ilaran... Oso urrun ikusten ditugu, eta haiengandik banantzen gaituena hileko ordainsaria besterik ez da.

Vuelve La Zaranda al Festival. En su nuevo montaje se refleja “el universo de una compañía, sus heridas y cicatrices, su desarbolada imaginaria, su desgarrada voz, sus personajes desahuciados. Los pies en los clásicos y la mirada en el horizonte de nuevas formas de hablarle al alma de cada hombre. Tradicionales y rupturistas, contradicción viva, contracorriente siempre, pasión de cuatro décadas por los escenarios del mundo: La Zaranda, Teatro Inestable de Ninguna Parte, cumple cuarenta años a lo hondo del tiempo”. Paco el de la Zaranda

En “Ahora todo es de noche”, se volvieron invisibles, tan acostumbrados ya estamos a verlos, dormitando en los vestíbulos de las estaciones y aeropuertos, revolviendo en los contenedores de basura, haciendo cola en los comedores benéficos... Los vemos tan lejanos y apenas la cantidad de una mensualidad nos separa de ellos.

**Egilea / Autor:** Eusebio Calonge

**Zuzendaria / Dirección:** Paco de la Zaranda

**Antzezleak / Intérpretes:** Gaspar Campuzano, Enrique Bustos, Francisco Sánchez

**ekoizpena / Producción:** La Zaranda - Teatro Inestable de Ninguna Parte en coproducción con Teatre Romea

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

100 m



# Erritu

## Kukai Dantza – Sharon Fridman

azaroak 9 noviembre, 20:30

Gure historian eta gure orainean txertatuta dauden antzinako errituak, non gizakiak gertutasuna eta elkartasuna bilatzen duen bere lagun hurkoekin. Dantzarien eta koralisten artean sorturiko giza basoa oinarri hartuta, gure garaietara iritsi diren erritu tradizionalei buruzko gogoeta garaikidea egingo da.

“Ikustean, entzutean edo arnastean hunkitzen zaituzten dantza, kanta, espazio... horiei buruzko gogoeta egin izan dut beti. Betiko errituak, ez dakigu noizkoak ere, baina gure artean dirautenak, hemen eta orain. Eta beti zerbait sentiarazten digutenak.

Dantza, melodia, espazio... horien inguruan sakondu eta hausnartzeko gogoeta da proiektu honen sorrera, eta espazio-denbora batean haiek batzekoa. Bertan, ikusleak ere sentimendu horren konplizeak izango dira, eta sortu eta bizitako unea bezain berezia izango da agertokia. Dantza, musika korala eta arkitekturaren arteko harmonia”.

Jon Maya Sein, proiektuaren zuzendaria

**Solasaldia antzezpena bukatutakoan /  
Tertulia tras la representación.**

**Zuzendaritza / Dirección:** Jon Maya Sein

**Koreografia / Coreografía:** Sharon Fridman

**Kantaria zuzenean / Canto en directo:** David Azurza

**Dantzariak / Bailarines:** Kukai Dantza

**Antzerkigintza / Dramaturgia:** Antonio Ramírez-Stabivo

[www.kukai.info/es](http://www.kukai.info/es)

Rituales ancestrales insertados en nuestra historia y en nuestro presente, donde el ser humano busca el encuentro y el sentido comunitario con sus semejantes. Desde el bosque humano creado entre bailarines y coralistas se realizará una reflexión contemporánea sobre los rituales tradicionales que han llegado hasta nuestros tiempos.

“Siempre pienso en esas danzas, cantos, espacios... que te emocionan al ver, oír o respirar. Rituales, de siempre, y casi no sabemos de cuando, pero que prevalecen en nosotros aquí y ahora. Y que siempre nos hacen sentir.

Este proyecto nace de las ganas de profundizar y reflexionar en estas danzas, melodías, espacios... y de querer unirlos en un espacio-tiempo donde el público también sea cómplice de ese sentir y donde el espacio de representación sea tan único como el momento creado y vivido. Harmonía entre danza, música coral y arquitectura”.

Jon Maya Sein, director del proyecto

Teatro Principal Antzokia

Dantza abonamendua / Abono danza



# The animals and children took to the streets

1927 (Erresuma Batua /Reino Unido)

azaroak 14 noviembre

2005ean eratu zuten Paul Barritt animatzaile eta irudigileak eta Suzanne Andrade idazle eta antzezleak, baina Esme Appleton antzele bikaina konpainian sartu zenean sortu zen benetan "1927". Animazioaren eta zuzeneko emanaldiaren uztartze horri Lillian Henley musikagile eta piano-jotzailearen talentua gehitu zitzaion. Gaur egun, antzeppenaren, zuzeneko musikaren eta animazioaren arloetan lanean jarraitzen du 1927k.

Konpainia britainiarrak *Golem* bere multimedia-obrarekin liluratu gintuen aurreko Antzerki Jaialdiaren edizioan. Edizio berri honetan *The animals and children took to the streets* lanarekin datoz.

**Nobela grafiko honetan, antzerki-bidaia harrigarria eta originaltasunez betea egitera gonbidatzen ditu ikusleak 1927 konpainiak.**

**Egilea / autoria:** 1927

**Idatzita eta zuzenduta / Escrita y dirigida:** Suzanne Andrade

**Diseinua, animazioa eta filma / Diseño, animación y filme:** Paul Barritt

**Musika / Música:** Lillian Henley

**Antzezleak / Intérpretes:** Suzanne Andrade, Esme Appleton & Lillian Henley (2010-2013). Sue Appleby, Eleanor Buchan & Lewis Barfoot (2013)

Ingeleseko ikuskizuna, gaztelaniazko goititulez lagunduta / Espectáculo en inglés con sobretítulos en castellano

[www.19-27.co.uk/](http://www.19-27.co.uk/)

Fundada en 2005 por el animador e ilustrador Paul Barritt, y la escritora e intérprete Suzanne Andrade, "1927" realmente nació cuando la extraordinaria intérprete Esme Appleton se unió a la compañía. A la fusión de animación y actuación en vivo se añadió el talento de Lillian Henley, compositor y pianista. En la actualidad 1927 sigue experimentando con la interpretación, la música en vivo y la animación.

La compañía británica nos maravilló en la pasada edición del Festival de Teatro con su obra multimedia *Golem*. Vuelven en esta nueva edición con, *The animals and children took to the streets*.

**Una novela gráfica en la que 1927 invita al público a un viaje teatral sorprendente y de gran originalidad.**

Teatro Principal Antzokia

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

70 m



# Espía a una mujer que se mata

Daniel Veronese

azaroak 17 noviembre, 20:30

"Chejoven Osaba Vania obraren bertsioa da *Zelatatu bere buruaz beste egiten ari den emakumea/ Espía a una mujer que se mata*, eta unibertsalak diren gai batzuk lantzen ditu: alkohola, izadiarekiko maitasuna, animalia arruntak, eta egia bilatzea artearen bidez. Jainkoa, Stanislavski eta Genet, hautsita". Daniel Veronese

"Lan honen berezitasuna ez da klasiko batetik datorren testuak bermatzen duen arrakasta; berezitasun hori zuzendariaren maisu-lanari zor zaio, jatorrizko mamari traiziorik egin gabe egungo gizartearen ikuspegia lortzen baitu. Veronesek, zentzu handiarekin, sinesgarritasunaren eta intentsitatearen arteko oreka lortu du egoera dramatikoetan, eta, are interesgarriagoa deritzodana, agertoki minimalista eta iradokitzaile batean barnean". Roger Fariñas Montano

Hemen dugu berriro Argentinako zuzendari handia, *Glengarry glen ross* edo *Terapiapean/Bajo Terapia* lanekin liluratu gintuena.

"*Espía a una mujer que se mata*, versión de *Tío Vania*, de Chejov, acaba sedimentando algunas cuestiones de orden universal: el alcohol, el amor por la naturaleza, los animales toscos y la búsqueda de la verdad a través del arte. Dios, Stanislavski y Genet, desvincijados". Daniel Veronese

"Aquí la particularidad no está en el éxito asegurado de un texto que parte de un clásico, sino en la maestría del director de la puesta que consigue una visión de la sociedad de este tiempo sin traicionar el espíritu original. Veronese ha logrado, con muy buen juicio, un equilibrio entre verosimilitud e intensidad en las situaciones dramáticas, y lo que me parece aún más interesante, dentro de un espacio escénico minimalista y sugerente". Roger Fariñas Montano

**Vuelve el gran director argentino, que ya nos deleitó con obras como *Glengarry glen ross*, o *Bajo Terapia*.**

**Egilea eta zuzendaria / Autor y director:**  
Daniel Veronese.

Chéjov-en Tío Vania antzezlanean oinarrituta  
/A partir de Tío Vania de Chéjov

**Antzezleak / Intérpretes:** Jorge Bosch, Pedro García de las Heras, Ginés García Millán, Malena Gutiérrez, Marina Salas, Susi Sánchez, Natalia Verbeke

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

80 m



# Todo el tiempo del mundo

Buxman-El Pavón Teatro Kamikaze

azaroak 22 noviembre, 20:30

Espainiako antzerki garaikideko irudirik interesgarrienetako gisa aitortua dago Pablo Messiez, eta azken lan honetan bere *Begiak/ Los ojos* lan arrakastatsuen bidea hartu du berriro ere. Bere gidaritzan leun eta samurrekin, Messiezen aitona bizitzan inspiratuta dago modu librean *Munduko denbora guztia/ Todo el tiempo del mundo*: emakumeen zapataria da, eta gauero, bere negozio txikia ixtean, ametsezko istorioen entzule bihurtzen da.

Gauero, lekukorik gabe, zerbait gertatzen da denborekin, eta istorio horiek guztiak elkartu egiten dira, iragana eta etorkizuna orainaldi jarraituan gainjartzen dira, eta, bertan, Flores jauna bera nor den ulertzen saiatuko da. Eta, zalantzaren aurrean, dena gainditzen duen maitasuna sortuko da.

Considerado como una de las figuras más interesantes del teatro español contemporáneo, Pablo Messiez retoma la senda de su exitosa obra *Los ojos* en esta última creación. Bajo su sutil y delicada batuta, *Todo el tiempo del mundo* se inspira libremente en la vida de su abuelo, un zapatero de señoras que hace a la vez de confesor de oníricas historias que le son relatadas cada noche al cerrar su pequeño negocio.

Algo sucede cada noche con el tiempo, cuando no hay testigos, que hace que todas estas historias convivan a la vez, superponiendo pasados y futuros en un presente continuo, en el que el señor Flores intentará comprender quién es. Y, frente a la incertidumbre, surgirá el amor que todo lo salva.

Solasaldia antzezpena bukatutakoan /  
Tertulia tras la representación

Antzerkigintza eta zuzendaritza /  
Dramaturgia y dirección: Pablo Messiez

Antzezleak / Intérpretes: Carlota Gaviño,  
Rebeca Hernando, Óscar Velado, María  
Morales, José Juan Rodríguez, Iñigo  
Rodríguez Claro y Mikele Urroz

Ekoizpena / Producción: Buxman  
Producciones y Kamikaze Producciones

www.buxmanproducciones.com

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

90 m



© Vanessa Rabade

# Jane Eyre

## Teatre Lliure

azaroak 24 noviembre, 20:30

Carme Portacelik Charlotte Brontëren eleberriaren egokitzapen hau zuzendu du, *Jane Eyre*, Ariadna Gilek bizia ematen dion heroi erromantiko handia.

“Charlotte Brontëk munduaren bere ikuspegia agertzeko leihoa da *Jane Eyre*. Obra honek klaseen arteko desberdintasun arbitrarioari buruzko iritzia ematen du, eta bereziki aipatzen du munduan emakumeak duen rola. Jane Eyrek ez digu inoiz uzten gauza bat ahazten, alegia, pobrea edo emakumea izateagatik ez dela besteak baino gutxiago.

Baina, ororen gainetik, *Jane Eyre* obra erromantikoa da, eta askatasunaren aldeko borroka da protagonistari indarra ematen diona, emakumeek askatasun hori lortu ezin zuten munduan.

Era berean, noski, maitasun-istorio handi bat ere bada, eta istorio hori soilik bi protagonistak berdintasunean daudenean bizi ahal izango da, maitasuna kartzela ez baizik askatasun-ekintza denean”. Carme Portaceli

Carme Portaceli dirige esta adaptación de la novela de Charlotte Brontë, *Jane Eyre*, la gran heroína romántica encarnada por Ariadna Gil.

“Jane Eyre es una ventana a través de la cual Charlotte Brontë nos enseña su visión del mundo. La Jane opina sobre la diferencia arbitraria entre clases y hace especial mención al papel de la mujer en el mundo. Ella nunca deja que nadie olvide, por ser pobre o ser mujer, que no es un ser inferior.

Pero por encima de todo, *Jane Eyre* es una obra romántica donde la lucha por la libertad es el impulso que guía a la protagonista en un mundo donde las mujeres no la podían alcanzar.

También hay, por supuesto, una gran historia de amor que sólo se podrá vivir cuando los dos protagonistas estén de igual a igual, cuando el amor no sea una prisión, sino un acto de libertad”. Carme Portaceli

Charlotte Brontëren eleberrian oinarrituta /  
Basada en la novela de Charlotte Brontë

**Egokitzapena / Adaptación:** Anna Maria Ricart

**Zuzendaritza / Dirección:** Carme Portaceli

**Antzezleak / Intérpretes:** Jordi Collet, Gabriela Flores, Abel Folk, Ariadna Gil, Pepa, Joan Negrié, Magda Puig

**Musika zuzenean / Música en directo:** Alba Haro violoncelo / Clara Peya-Laiá Vallès piano

**Musikaren egilea / Música original:** Clara Peya

[www.teatrelivre.com](http://www.teatrelivre.com)

Teatro Principal Antzokia

Mendeurreneko abonamendua /  
Abono centenario

120 m





# La conquista de lo inútil

Compagnie L'alakran (Suiza)

urriak 20 octubre

Talde bat osatu behar dugu, munduari erronka bat egiteko. Alferrikakoaren konkistatzaileak gara. Irudika dezagun mundu bat: bertan, falta zaigun hori izango da definitzen gaituena; alferrikakoa dena izango da funtsezkoa. Osagarria beharrezko bihurtuko da. Hori konkistatzera abiatuko gara, azken konkista, *Alferrikakoaren konkista*.

Zerk bultatzen du gizakia bere erosotasun-gunetik atera eta alferrikako gauzak egitera?

Oscar Gómez Mata Donostian jaio zen, eta Suitzan, Ginebran, bizi eta lan egiten du.

Aktorea eta zuzendaria da, eta egilea eta eszenografoa ere bai, eta 1997an sortu zuen L'Alakran konpainia. Horren bidez, hainbat ikuskizunen zuzendaritza, sorrera, dramaturgia edo testuak sinatu izan ditu. Ikuskizun horiek Europan eta Hego Amerikan barrena eman izan dira.

Vamos a formar un grupo para lanzar un desafío al mundo. Somos conquistadores de lo inútil. Imaginamos un mundo en el cual lo que nos falta es lo que nos define, en el cual lo inútil es esencial. En el cuál el accesorio se vuelve necesario. Nos lanzamos a su conquista, una última conquista, *La conquista de lo inútil*.

¿Qué impulsa al ser humano a salir de su zona de confort y lanzarse a realizar cosas inútiles?

Nacido en San Sebastián, Oscar Gómez Mata vive y trabaja en Suiza, en Ginebra.

Actor, director y también autor y escenógrafo, funda en 1997 la Compañía L'Alakran por la cual firma la dirección, la concepción, la dramaturgia o los textos de varios espectáculos, que giran por Europa y Sudamérica.

Teatro Félix Petite Antzokia

Ikuskizuna Ibaiondon abonamendua /  
Abono el espectáculo en Ibaiondo

100 m

**Ekintza osagarria Ikusle aktiboa /  
Actividad Adicional Espectador Activo**

Ibilbidea konpainiaren eskutik, alferrikakoa konkistatzeko / Paseo de la mano de la compañía, para conquistar lo inútil

Lekua / Aforo: 20

Principal Antzokiko Leihatilan gonbidapena jaso behar da iluskizunaren sarrera aurkeztuz / Recogida de invitaciones en la taquilla del Teatro Principal presentando la entrada del espectáculo.

18:00 Ibaiondo Gizarte Etxea

75 m

**Egilea / Autor:** Oscar Gómez Mata eta antzezleak / y actores.

**Zuzendaritza / Dirección:** Oscar Gómez Mata

**Antzezleak / Intérpretes:** Javier Barandiarán, Txubio Fernández de Jauregui, Esperanza López

# Grand Applause (Performance)

Jorge Dutor & Guillem Mont

urriak 27 octubre, 20:30

Bizeten Carmen operaren fikzioan oinarrituta, Jorge Dutor eta Guillem Mont de Palol artistek aurkezten duten erakusketa guneak beste arte-diziplina batzuekiko mugako lurraldeetan hartzen du arnasa.

Haren sortzaileen hitzetan: “erakusketa-formatu batetik performance-formatu igarotzea proposatzen dugu. Proiektu kuratoriala da, Bizeten Carmen operaren fikzioan oinarrituriko 1:1 eskalako arkitektura birtuala zeharkatzen duen koreografia, eta eguneroko objektuetatik abiatuta fikzioak iradokitzeko ahalmena partekatzen duten hiru artisten lana solasean jartzen duena”.

Arte-jardueraren ekoizpen, erakusketa eta elkarreragiteko moduak umorez eztabaidatzeko pieza.

Basada en la ficción de la ópera Carmen de Bizet, los artistas Jorge Dutor y Guillem Mont de Palol presentan un espacio expositivo que cobra vida en los límites de fricción con otras disciplinas artísticas.

En palabras de sus creadores: “proponemos una traslación de un formato expositivo a un formato performático. Es un proyecto curatorial; una coreografía que recorre una arquitectura virtual de escala 1:1 basada en la ficción de la ópera Carmen de Bizet y pone en diálogo el trabajo de tres artistas que comparten la potencia de sugerir ficciones a partir de elementos cotidianos”.

Una pieza en clave de humor para cuestionar las formas de producción, exhibición e interacción de la práctica artística.

En colaboración con “InTACTO festival” ekin lankidetzaz

**Egileak / Autores:** Jorge Dutor y Guillem Mont de Palol. Con obra de Norberto Llopis, Luis Urculo y Bernhard Willhelm.

Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia

JIM aktual abonamendua / Abono JIM aktual



# Best of Be FESTIVAL

## Birmingham Festival

azaroak 7 noviembre, 20:30

BE FESTIVAL jaialdia udan egiten da Birmingham-en, duela bederatziti urtetik, eta gaur egun erreferentziatzeko jaialdia da, Europako joera berritzaileenak eta diziplinartekoenak biltzen baititu. Jaialdiak arreta berezia ematen die lankidetzari, partaidetzari, trukeari eta publikoarekiko interakzioari.

Urtero, jaialdian gustukoaren gertatzen diren ikuskizunetako hiruk bira egiten dute Ingalaterrako antzoki onenetan. Hautaketa hori hirugarren urtez etorriko da gure Jaialdira

